

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIORECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEO

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO Y VIVIENDA

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Amaitu da izokinak arrantzatzeko denboraldia Nafarroan

*Atzo arrantzatu zen 48. izokina eta, hala, urte honetarako jarritako kupoa osatu da*

Jueves, 12 de julio de 2012

Nafarroan izokinak arrantzatzeko denboraldia atzo, uztailak 11, amaitu zen 28. arraina harrapatu ondoren. Era horretan, urte honetarako Foru Komunitatearentzat jarritako kupoa osatu da.

Zehazki, urteko azken izokina Berako herritar batek harrapatu zuen euli-arrantza eran. 1,9 kiloko eta 58 cm luze den arraina izan da, ablazioarekin hegats adiposoan markatuta zegoena, eta horrek esan nahi du arrain hori arrainkume gisa birpopulaziotik etorri dela, eta ia segurtasun osoz Nafarroako Gobernuak urtez urte Bidasoa arroan, Oronoz-Mugairiko arrain-haztegiaren bidez, egiten ari den birpopulaziotik datorrela.

Urteko lehen izokina, lehenbizikoa, koilaratxo-eran arrantzatu zen maiatzaren 1ean "Pozo de los Cincuenta" izeneko putzuan. 6,54 kilo pisatzen zuen, 82 cm luze zen eta Arguedasko herritar batek harrapatu zuen. Azken aleak bezala, aleta adiposoaren ablazioa zuen, hau da, horrek esan nahi du arrain hori arrainkume gisa birpopulaziotik etorri dela.

Denboraldi honetan arrantzatutako 48 izokinetatik, 27 (% 56,2) basati-jatorrikoak ziren eta 21 (% 43,8) markatutako izokinak, hau da, Nafarroako Gobernuak burutzen duen birpopulaziotik datozenak.

Harrapatutako aleen batez besteko pisua 4,79 kilokoa izan da eta batez besteko luzera, berriz, 76,4 zentimetrokoa; pisu handieneko aleak 8,53 kilo pisatzen zuen eta txikiak, berriz, 1,46 kilo eta, luzerari dagokionez, luzeena 94,5 cm-koa zen eta laburrena, 55 cm-koa.